



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2009ko urtarrilaren 21a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:05

BUKATZEKO ORDUA: 21:07

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

1. Onartzea, egoki bada, N-634 errepidearen urbanizazio proiektua, Orioko Ortzaika auzoaren inguruan.
2. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorra.
3. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2009ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.
4. Onartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkartearen Batzorde Exekutiboan Orioko Udalaren ordezkari bat aldatzea: Joseba Goiburu Manzisidor zinegotziaren partez, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño zinegotzia sartzea.
5. Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarri aurkeztutako mozioa, Palestinako herriari egindako erasoak eta Gazako sarraskiak gaitzetsiz.



ESAN-EGINAK

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, N-634 ERREPIDEAREN URBANIZAZIO PROIEKTUA, ORIOKO ORTZAIKA AUZOAREN INGURUAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; "Proyecto de Urbanización de la N-634 a su paso por el barrio Ortzaika de Orío" izeneko proiektua EARKI 2007 SLko Jose Eizmendi Perez eta Imanol Agirre Manterola arkitektoek idatzi dute eta bere kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 1.270.959,59 eurokoa da (BEZ barne).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaile bateratuak 2009ko urtarrilaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA N-634 errepidearen urbanizazio proiektua, Orioko Ortzaika auzoaren inguruan; proiektua EARKI 2007 SLko Jose Eizmendi Perez eta Imanol Agirre Manterola arkitektoek idatzi dute eta bere kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 1.270.959,59 eurokoa da (BEZ barne).

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2009KO AURREKONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorraren berri jakiten du.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du oso haserre dagoela alkateak aurkeztu duen aurrekontu-proiektuarekin, honako arrazoiengatik:

- Oso denbora gutxi izan da ekarpenak aurkezteko; are gehiago kontuan hartuta, aurrekontuari buruzko 2003ko Foru Arauak agintzen duen bezala, 2009ko aurrekontu-proiektuak 2008ko urriaren 15erako eginda egon behar zuela.
- Aurrekontuak ez dira batere partehartzaileak.
- Bisiguaren Eguna eta Orion Jai ekitaldiak inposatu egin dira, zeren eta alkate-dekretuz onartu baitira horien gastuak, Udaleko oposizioaren gehiengoaren gainetik; galdetzen du ea Bisiguaren Eguna ez ote den elitista.
- Merkataritza sustatzeko 15.000 euroko aurrekontu-partida bat egokitu da, 30.000 euro eskatu ziren arren.

Bestalde, adierazten du aurrekontu-proposamena garaiz eta ekarpenak aurkezteko denborarekin prestatu izan balitz, Ezker Batua-Berdeak talde politikoak honako proposamenak egingo zituela, besteak beste:

- Hirugarren adinekoentzako egoitza bat.
- Diru sarreretako I. eta II. kapituluaren % 10 erabiltzea lurzorua erosteko eta babeseko etxebizitzak eraikitzeko, alokairuzkoak edo babes ofizialekoak,



kontuan hartu behar baita Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak, lurzoruaren ondare publikoa arautzerakoan, honakoa adierazten duela: urtero aurrekontuaren diru sarreretako I. eta II. kapituluaren % 10 erabili behar dela lur publikoak erosteko.

- Baratze ekologikoak jubilatuentzat, beren denbora librean erabiltzeko.
- Orioko Plaza aldizkaria argitaratzeari uztea, krisi garai honetan, eta Karkara aldizkariarentzako aurrekontu-partida handitzea, inpartzialagoa, anitzagoa eta parte hartzaileagoa delako eta guztiei tokia ematen dielako. Orioko Plaza aldizkaria, berriz, bere burua promozionatzeko erabiltzen du alkateak zergadun guztien diruarekin.
- Gazteentzako diru laguntzak.
- Alkatearen soldata izoztea.

Iñaki Garciak adierazten du, ondorioz, azaldutako arrazoiak direla eta, ezezko botoa emango diola Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorren onarpenari.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du baiezko botoa emango diola Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorri; bere botoa azaltzeko, honakoa adierazten du, hitzez hitz:

“ZERGATIK BAI AURREKONTU HONI

Gaur bozkatuko dugun aurrekontu hau ez da, gure ikuspegitik, egin litekeen onena, ez da ehuneko ehun guk egingo genukeena, baina on asko dauka. Lehenengo eta behin, ohi baino askoz diru sarrera handiagoa dauka, lau milioi euro gehiago, eta horri esker aurten Orion obra, gastu eta inbertsio asko egingo dira.

Ez da bilera askorik egin hasieran aurkeztu zitzaigun zirriborrotik azkenean bozkatuko den honetara iristeko bidean, eta hori hobetu egin beharko litzateke, hobetu egin beharko dugu, eta guztiokin negoziatu aurrekontuko diru-partidak. Baina hori horrela izanagatik, gauza dexente dira lehenengo zirriborro hartatik gaurkora aldatu direnak, eta batzuk garrantzi oso handikoak:

- Lehenengo hartan ez zegoen diru-partidarik Ikastola egiten ari den eraikinaren finantziatorako, eta orain 1.070.000 € daude.

- Lehenengo hartan, diru hori dena arrauneko teknifikazio zentru berrirako jarrita zegoen, 1.900.000 € eta orain 900.000 € daude, milioi bat gutxiago. Eta hori ona da, horrek behartzen gaituelako gauzak ondo egiten, beste erakunde batzuek ere kolaboratu dezaten horren finantziazioan, eta GFAk eta Madrileko Consejo Superior de Deportesek ere diru partida handia jarri dezaten obra handi horren finantziazioan. Obra horretarako aurreikusita dagoen inbertsioa, ia lau milioikoa, Oriorentzat bakarrik, oriotarrantzat bakarrik gehiegizko dirutza delako.

- Lehenengo hartan, aurreikusita zegoen diru partida bat hondartza aldean batzuek jarri nahi duten frontoi bat egiteko, behar den azterketarako. Guk ez dugu haren beharrik ikusten, edo gutxienez behar-beharrezkoa ikusten dugu



orain daukagun frontoiari eustea edo egingo den berria herrian bertan egitea. Eta kontua da orain diru partida hori desagertu egin dela eta hondartza aldeko frontoiaren konturik ez dagoela aurrekontu honetan. Eta, aldiz, badagoela diru partida bat oraingo frontoian obra egiteko eta teilatu osoa aldatzeko.

- Oraingo honetan bada beste diru partida bat Goiko Kalen automobilentzako aparkaleku bat jartzen hasteko.

- Eta, azkenik, lehenengo hartan ez zegoen diru partidarik lur sail bat erosi eta sail horretan babestutako etxeak jartzeko alokairuan. Eta oraingo honetan, bai.

Hori dena aldatu da hasieran aurkeztu zitzaigun aurrekontu proposamen hartatik gaur aurkezten zaigun honetara. Eta horrela, jaun-andreok, aurrekontuak asko irabazten du, gauzak askoz orekatuagoak dira. Aldaketa horiekin asko irabazi bada ere, lehendik ere baziren hainbat gauza beste partiduok proposatutakoak eta aurrekontu proposamenak jasotzen zituenak:

- EAK aurkeztutako proposamenak jasota daude, futbol zelaian taberna ondoko sarrera aterpe batekin babestekoa eta hondartza-eremuan Oteizaren oroimenerako zerbait jartzea, esate baterako.

- Guk proposatutako bide gorri bat, Dike aldetik zubiraino etorriko dena, eta bizikletan dabiltzanei seguritatea emango diena eta bizikletaren erabilera bultzatuko duena, onartu egin zen; kiroldegiko sarrera ondoan eskailera batzuk jartzea orain egin behar den joan-etorriko aldapa luze hori saihesteko balioko duena onartu egin zen; kanpineko kanpoko pareta gai ekologikoekin pintatzeko proposamena onartu egin zen; eta euskararen alorrean proposatutako diru partidak ere onartu egin dira bere horretan.

- ANVkoek bultzatutako Ortzaika aldeko urbanizazio-lanak ere egin egingo dira aurten. Horretarako diru-partidarik ez dago jasota aurrekontu honetan, baina aurreko puntuan bozkatu eta onartu dugu, Madrileko Gobernuak inbertsioak sustatzeko jarri duen diru-partida Orion horretarako erabiltzea.

Aurrekontu honetan badira gauza batzuk ez daudenak guk egingo genituzkeen bezala. Diru partida bat dago Orioko Plaza aldizkaria argitaratzen segitzeko eta gu ez gaude horren alde; batez ere orain arte egin duen bidean erabilera alderdikoia eman zaiolako. Baina gai honetan ere lortu dugu alkateak hitz ematea bilera bat egingo dugula gaia denon artean adosteko eta, edozein kasutan, testuak argitaratu aurretik zinegotzi guztion eskuetatik pasako omen dira. Bada zerbait.

Baina kontuan hartuta, lehen aipatutako aldaketa horiek guztiak egin direla aurrekontuan lehenengo proposamenetik guar aurkeztutakora, eta hasierako hartan ere hainbat inbertsio zeudela aurreikusita, guk ontza jotzen ditugunak, adibidez, Zaragueta eskolako solairu guztietan komunak berritzeko egingo den obra; kosta tailerra berritzeko eta erabiltzaileen beharretara egokitzeko egingo den obra, edo kanpo santua handitzeko obra, ba, gure aldetik ardura falta



handia litzateke aurrekontu hau aurrera ez ateratzea. Horregatik, erabaki dugu guk baietz esatea.

Hasieran genioen ez dela bilera askorik egin aurrekontu hau negoziatzeko eta hori hobetu beharko litzatekeela, baina gai honetan aipatu beharrekoa da azken hilabeteotan kulturaren mahaia sortu dela, eta dagoeneko bere bidea urratzen ari dela; eta beste horrenbeste gertatzen dela euskararen alorrean, non euskararen aholku batzorde bat martxan dabilen. Batean bezala bestean ere herritarrek parte hartzeko aukera dute, eta han esaten diren gauza askok bere eragina izan dezakete aurrekontuan, aurtengoan neurri batean izan dute eta datozen urteotan ere izaterik izango dute. Horretarako, herritarren parte hartzea ezinbestekoa da eta Udaletik guk bideak zabaltzea eta erraztea. Hori guztion lana da.”

Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere taldeak ezezko botoa emango diola Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorrari; bere botoa azaltzeko, honakoa adierazten du, hitzez hitz:

“EAJk aurkeztutako aurrekontu horiek EZETZA bozkatu dugu honako arrazoiengatik:

1. Prozedura eta lana egiteko metodologia: PNVk azaldu duen jarrera itxia eta harroa salatzen dugu. Joan den urtean bezala, aurtengo aurrekontuak ere (herriari eta herritarren hitza eta beharrei bizkarra emanez) PNVk duen proiektuak eta ekintzak soilik bultzatu ditu. Bileretan, inolako eztabaidarik gabe eta eztabaidatzeko aukerarik gabe utziz beste alderdiei. Guk gure planteamendua egin dugu, alternatibak azaldu eta herriko eragileekin eta alderdiekin konpartitu; baina, Ogasun bileran inolako aukera ez dugu izan proposamena eztabaidatu eta are gutxiago onartuak izatea (ezta bat bera ere). Alderdiekiko eta eragileekiko harrotasuna eta errespetu falta izan du PNVko alkatea eta zinegotziek, negoziazio hitza erabili baina inolako negoziatorik gabe: beraien aurrekontuak inposatu.

2. Aurrekontu honek akats larriak ditu:

a) Orion jai/Orio estilora, aurreko urtean inposatu zuen bezala, 100.000 euroko partida; gainontzeko jaietarako 90.000. Zer nolako herriko festak bultzatu nahi ditu PNVk? Bi jaietara mugatuko du sekulako dirutza: herritarren partaidetza eza, elitismoa bultzatu eta PNVren mesederako soilik diseinatutako jaiak direla kontuan hartu. Gainontzekoa herritarren guztiarentzat. Planteamendu hori motza eta manipulazalea dela uste dugu eta guztiz kontra gaude.

b) Genero berdintasuna: 2.000 euro ekintzetarako. Aurten, Genero berdintasunari buruzko diagnostikoa prestatzen ari da: 8.000 €ko dirulaguntza Diputazio eta Erakundetik. Partaidetza ziurtatu behar dela eta bermatu behar dela eskatzen eta exijitzen dugu: herritarrei eta eragileei hitza eman behar zaie. Diagnostiko egin ondoren, sortuko den ekintza plana denon artean adostu eta bideratu. Egia esan, 2.000 €ko partida oso eskasa dela.



c) Nekazaritza eta arrantza arloa suspertzeko kopururik gabe. Industriarako kopururik gabe. Nola nahi duzue bultzatu Orioko arrantza eta nekazaritza, inolako dirulaguntzarik gabe? Nola nahi duzue Orioko industrialdea sortu eta bultzatu gure ekonomia, dirurik gabe?

Egun, EJK bere planteamendu estrategikoan arrantza eta nekazaritza arloak sartu ditu. Europatik 2007-2013ko plan berria dator eta EJK eta Diputazioak dirulaguntza bideratzen dituzte. Zuek ezer ez! Europatik dirulaguntza dezente egonda ere (azpiegiturak hobetzeko, enplegua suspertzeko, ekonomiak suspertzeko dirulaguntzak, teknologiak zabaltzeko...), soilik bultzatzen duzue zuen interesak (azpiegiturak eta zementua) Gu ez gaude azpiegiturak hobetzeko kontra (kontsensuaren bidez badira behintzat); baina, behar gehiago badaude. Nola nahi duzue Ekonomia eta enplegu batzordean lana egitea aurrekonturik gabe? Nola suspertu nahi duzue lanpostua eta ekonomia? Batzordean aurrekontua diktaminatu eta onartu egin zen eta zuek pikutara bidali gure proposamena behin eta berriz; eta ajusteak direla argudiatuz, gure partidak era miserablean geratu.

d) Zer esan KARKARA-HITZari ematen zaien tratamendutaz, guztiz lotsagarria: joan den urteko dirulaguntza bera. 2008an, Orioko Plaza aldizkaria ateratzeko 44.000 € (8 orrialde gutxigora-behera), ikusiko dugu bere benetako kostea zein izango den. Aurten ere, kopuru berdina publikazio guztiz partidista eta baztertzalea den bati. Lotsagarria benetan; gainontzeko alderdiok (zuek PNV eta PSOE izan ezik) aldizkari horren kontra azaldu gara behin eta berriz; eta hala ere, jarraitzen duzue inposatzen, orain, agian, pixka bat irekiagoa izango delakoan, baina kutsu politikorik gabe eman gabe, alkatearen esanetan!!! Guk ez dugu sinisten aldizkaria irekiagoa izango denik, zuen jarrera beti itxia izan baita: gai horrekin eta beste guztiekin. Nola sinistu orain? Bertako egunkariak bultzatu beharrean, gure hizkuntza bultzatu beharrean; garestia, interesatua eta baztertzalea den publikazio bat bultzatzen duzue.

e) Gaztediaren partida: 15.000 € eta Gaztetxeari dagokionez, kopururik gabe. Nola nahi duzue bideratu gaztediak eskatzen duena? Entzungor eginez? Gazteek lokal dina (gaztetxea) nahi dute: biltzeko, formatzeko, ondo pasatzeko Gazteek behin eta berriro beraien planteamendua azaldu dute; irailean, PNVk izan ezik, gazteekin gainontzeko alderdiak bildu eta lokala bilatzeko eta bideratzeko adostasuna lortu genuen: etxe luzea alokatu eta gaztetxea bihurtu. Ondoren, bilera batzuk egin dira eta adostasun hori pikutara joan da. Egun, lokalik ez eta dirulaguntzarik gabe, nola nahi duzue konpondu egoera hau? Beste aukerak egon omen dira, dirudienez Iñaki Iturainentzat, Aralarreko zinegotziak, Etxe luzeko alokatzea oso garestia iruditzen zitzaion (1.000 euroko hilean) eta hartutako adostasuna pikutara bidali ostean, beste proposamena egin zuen: Orioko gazteak Aiako Huegun Industrialeko lokal batetara bidaltzeko inolako arazorik ez zuela azaldu zuen, lokalaren alkilerria 2.000 €ko hileko. Gazteei ez zaie ondo iruditu: lokala Aian delako, arriskuan jarriko direlako (karretera tartean dela) eta herrian beste aukerak ba omen daudelako. Gazteek hitz egin eta negoziatu nahi dute udalarekin (udal osoarekin, guztiokin) Gauzak konpontzeko



hitz egin behar dela besterik ez; baina, aurrekontuan ez badira jartzen partidarik nola bideratu?

f) Ongizatearen egoera, zoritzarrez krisi ekonomikoaren ondorioak ez dira kontuan hartu eta aurreikusitako ere ez.

g) Ingurumenari buruzko ekarpenak ez dituzue kontuan hartu eta inolako partidarik gabe geratu da. Turismo eta ingurumenaren batzordeak aurkeztu zuen aurrekontuari muzin eginez.

h) Alderdi eta politikoen soldataren igoerarik ez, PNVk planteatu du alderdien igoera %5a eta politikoei %6,6koa. Lotsagarria iruditzen zaigu kopuru horiek igotzea, Udalhitz barruan egon arren, gure proposamena zen aurten ez igotzea: politikoen soldata oso handia dela, igo beharrean soldatak jaitea beharko genuke, eta horretatik sortzen den gastua arlo sozialetara pasatzea.

3. 2009ko aurrekontuan, gure lehentasunak markatu ditugu; baina ez dira kontuan hartu ezta bat bera ere:

Nahiz eta inolako gauzatzeko eta kontuan hartzeko aukerarik gabe geratu, gure proposamenak luzatu ditugu bai alderdien artean, bai herritarren artean. Hala ere, PNVk ez du kontuan hartu gure inolako proposamenik eta ez du eman negoziatzeko aukerarik. Laburki gure lehentasunen artean:

a) Etxebizitzaren diagnostikoa egitea, benetako beharrak zeintzuk dira: etxebizitzaren egoera, kopurua, etxe hutsen kopurua eta egoera, alkiler-sozialaren bultzada, 20.000 €

b) Lurren erosketa: 400.000 € partida jarri, helburuak zehazteke (zaharren egoitza eraikitzeke, enpresen haztegia egiteke, gaztetxea eraikitzeke, ...) Udaletxeak ondasunak izan behar ditu etorkizunean zein nolako beharrak asetzeko eta denon artean erabakitzeke nola bideratu.

e) Gaztetxearen hitzarmena: lokalaren alkilerria, konponketa eta segurua 200.000 €

d) Kanposantuaren konponketa 2 urtez denboralizatu, 1.100.000€ kopurua oso handia denez eta benetako beharra datorren urtetik aurrera izango duelakoan, gure proposamena zen kopuru hori zatitu bi urtetan banatzea; eta bitartean, benetako kanposantuko egoeraren azterketa eta beharrak kontuan hartzea.

e) Ekintza ekonomikoak eta enpleguko batzordearen aurrekontuaren errespetatzea, 44.000 €koa, PNVk berak erabakita, 9.200 € nekazaritza, arrantza eta formakuntza. Industria bultzatzeko 0 € Aurten, Orioko industrian buruzko diagnostikoa egin da; eta sortuko diren ekintzetarako inolako dirurik ez dira eman, batzordean onartua izan arren.

f) Turismo eta ingurumen batzordearen aurrekontuaren errespetatzea, Turismo atala berdina mantenduz (2008ko %5ko igoera) eta ingurumenari buruz 0€. Zer



gertatzen da? Ezker Abertzaleak bideratzen dituen bi batzordeei bakarrik egin zaizkie ajusteak??? Zergatik? Inolako elkarrizketarik gabe gainera! Nola nahi duzue ekintza planak aurrera ateratzea??

g) Ongizate arloa landu eta suspertu: Krisis ekonomikoaren eragina aurreikusteko plangintza landu behar da: ongizate arloan lanean diharduten eragileekin harremanetan jarri. Ongizate bulegoa herritarrei zabaltzeko asmoz, udaletxeko administratibo bat aldi-baterako lana egin dezake ongizateko bulegoan 2 teknikarekin batera. Horrela, beraien bulegoko lana arindu eta herritarren benetako beharretara egokitu eta iritsi dezakete. Familiei eta erakundeei diru partida handiagoa eskaini (PNVk %5ko igoera proposatu, guk ordea, %30a) Proposamena horri ere muzin eta kasurik ez.

h) Azkenean, ikastolaren gaia: Udalak ikastetxeen beharrak asetu behar dituela pentsatzen dugu. Ikastolak joan den maiatzean bere eskaera (eraikuntzaren beharra eta finantziario akordioa) luzatu zuen. Hamaika bilerak egin ondoren, adostasunik gabe eraikina hasi zen eta finantziario akordioa duela gutxi arte ez da iritsi. Beno, guk ezin dugu deitu akordioa deitu. Azkenean, finantziario gaia PNVk, Iñaki Iturain, Aralar-eko zinegotziarekin batera, inposatu dute beraien tesisa: finantziario partida gutxiengo kopuruan ezarriz: ikastolaren eraikinetarako 1.070.000 €ak soilik; kreditu-puentearen interesak eta lankidetzak hitzarmena zehazteke (irailtik aurrera negoziatzen). Guretzako akordio hori oso txarra da eta ez gaude ados ez prozeduraz eta kopuruaz.

Hala ere, txarrena ez da hori izan. Txarrena izan da azkeneko bileran PNVk izan zuen jarrera: bertan, bozkatu behar izan genuen hi aurrekontu: bata ikastolaren partidari gabe, eta bestea, ikastolaren partida sortu (1.070.000 €, 7. kapituluan) Arraun Klubaren eraikinaren partidari kenduz. Horrela planteatu zuten. Gainontzeko proposamenik, partidari eztabaidatu nahi ez eta negoziatu gutxiago! Bata ala bestea. Beno, esan behar dugu oso garbi, aurrekontuak horrela planteatzea guztiz kontra gaudela. Arraun Klubaren eraikinaren berritzearen alde azaldu gara, baina aurrekontuko hasierako zirriborroan, 1.987,000ko partida jartzen zuen PNVk. Guk, proiektuaren alde egon arren, kopuru hori gehiegi zela kontsideratu genuen eta proiektuari buruz informazio gehiago nahi genuen. Gabonetan, Arraun Klubeko partaideekin hitz egin ondoren gure kezka azaldu eta benetako beharrak zeintzuk ziren ikusi genituen. 2009an hasi behar diren lanaren kostea askoz gutxiago izango dela eta partidaren kopurua egokitu behar dela konturatu ginen eta gure postura azaldu genien. Gure proposamenetan Arraun Klubeko eraikina eraberritzeko jarri dugu: 947.000 €ko partida (jakinda proiektua 3 urterako dela, eta kopurua beharren arabera aldatuko dela) Aurrekontuak partidari herritarren eta eragileen benetako beharrak asetzeko hain diru planteatu behar ditu; eta gero, gehiago behar izanez gero, kredituen aldaketaren bidez kudeatu.

Horregatik, PNVn jarrera lotsagarria dela uste dugu: beraien esanetan, Arraun klubeko eraikinaren partida jaitzi ikastolaren partidaren mesederako. Arraun Klubeko proiektuari ez zaio kendu kopuru bat ikastolari mesedea egiteko (horrela saltzen duten arren). Gure ustez, Arraun Klubeko eraikinaren partida



benetako egokipena egin zaio eta ikastolari gutxiengo kopurua eman zaio. Horrela planteatzea PNVk, herritar guztiei gezurra esatea eta iruzurra egin nahi duela deritzogu: bi eragile indartsu arteko harremana txartu eta herritarrengan egonezina bilatu.

Horregatik, Aurrekontu hauei Ezetz esaten diogu.

Aurrekontu hauek ez dira partehartzaileak, herritarren beharrei ez zaizkie egokitu eta politikoki eskuineko ildo mantentzen ditu.

Ezker Abertzaleak aurrekontu sozialagoak eta partehartzaileagoak bultzatu nahi ditu, eta era berean, Orioko herriak ere Euskal Herrian nazio eraikuntzaren partaide aktiboa izan behar du."

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du baiezeko botoa emango diola Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorrari; bere botoa azaltzeko, honakoa adierazten du:

- 2009ko gastuen aurrekontuko lehen lau kapituluek ez dutela alde handirik aurreko urtekoekin.
- Aurrekontua asko handitu da 6. kapituluan, inbertsioetan, eta partida izugarri handi bat dago 7. kapituluan.
- Aurrekontu hedakorra da: inbertsioek ez dute sortzen gehiegizko gastu arruntik eta ez dira hipotekatzen hurrengo urteetako aurrekontuak.
- 2009ko aurrekontuak baditu orbanak, baita ere; esate baterako, Udalbiderentzat eta Uemarentzat irekitako partidak. Orbanik handiena, hala ere, Orioko Herri Ikastolarentzat aurreikusitako 1.070.000 euroko diru laguntza izenduna da, Munto aldean DBHko ikastetxe berria egiteko. Jesusek dio partida hori aurrekontuari kanpotik inposatu zaion zerbait dela.
- Sozialistek beka-poltsa batzuetara zuzenduko lukete 1.070.000 euroko partida hori eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin negoziatuko lukete Orion DBHko ikastetxe bat eraikitzea, sare publikora sartzeko, edo irakaskuntza ertaineko ikastetxe bat eraikitzeko gastatuko lukete diru hori, edota behar sozialei aurre egiteko. Sozialistak ez daude ados 1.070.000 euroko partida horrekin, inbertsioetako 6. kapitulua nabarmen gutxitzea dakarrelako eta enpresa pribatu batengana doalako, Orioko haurren heziketan inolako benetako eraginik izan gabe.

Hala ere, Jesus Rodriguez zinegotziak adierazten du hobe dela aurrekontu txar bat izatea, batere gabe egotea baino, eta, beraz, aldeko botoa emango diola 2009ko aurrekontuaren onarpenari.

Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du 2009ko udal aurrekontuak kapitulu positibo batzuk dituela Orioko herriarentzat. EAK egindako hainbat proposamen ere biltzen ditu, guztiz beharrezkoak: Goiko Kaleko aparkaleku publiko doanekoa, futbol zelaiko kirol instalazioen hobekuntza eta proiektu berritzaile, erakargarri eta ilusionagarri bat: hondartzako Oteiza gunea.



Hala ere, EAkoek uste dute alderdi batek erne egon behar duela, herritarren behar eta espektatibak jasotzeko eta ez haiei huts egiteko, eta, zentzu horretan, aurrekontuak ez ditu jasotzen eskari garrantzizko batzuk: gazteentzako lokala eta gure ikasleen heziketa beharrei erantzuteko laguntza ekonomiko nahikoa.

Adierazten du, baita ere, Hondartza aldean proiektatutako museoaren partez auditorio bat jartzea polikiago eta sakonago hausnartzeko kontua dela eta ez dela presaka egin behar.

Bixente Lasa zinegotziak adierazten du, azkenik, aurreko guztiagatik, abstentzio botoa emango diola 2009ko Aurrekontu Orokorren onarpenari eta, dagozkion bide legalak erabiliz, komenigarri ikusten duela aurrekontu hau hobetzea hainbat eta hainbat alderdi eta kapitulutan.

Alkateak hartzen du hitza eta 2009ko Aurrekontu Orokorren defentsa irmoa egiten du; adierazten du ekonomikoki ondo dotatutako aurrekontuak direla eta, horren froga gisa, esaten du 6. eta 7. kapituluen artean 7.682.607 euro osatzen dutela eta hori % 90 gehiago dela 2008ko aurrekontuan baino.

Alkateak honako adierazpen hauek ere egiten ditu:

- Eskerrak ematen dizkie Aralar eta PSE-EE-PSOE alderdiei eta beren udal ordezkariari —Iñaki Iturain eta Jesus Rodriguez, hurrenez hurren—, 2009ko Aurrekontu Orokorra onartzeko emango duten baiezeko botoagatik.
- Ezker Batua-Berdeak alderdi politikoari aurpegiratzen dio ez diola inolako ekarpenik egin 2009ko aurrekontuari eta bera izan dela ekarpen bat bera ere aurkeztu ez duen bakarra.
- Eskerrak ematen dizkio Hazienda batzorde informatzaileko buru Martxiel Genobari, 2009ko aurrekontu-proiektuaren idazketan sustatzaile eta bultzatzaile gisa egindako lanagatik.
- Talde mistoko zinegotzietan leporatzen die beren lema dela: ‘zenbat eta okerrago, orduan eta hobeto’; eta adierazten du beren aurrekontu alternatiboak ez duela legea betetzen, desfase handia dagoelako gastu arruntaren eta diru sarrera arruntaren artean.

Azkenik, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere taldeak ezezeko botoa emango diola 2009ko Aurrekontuaren onarpenari; besteak beste, honako arrazoiegatik: talde mistoak ekarpenak egin ditu, baina EAJk jarrera erabat itxia agertu du eta, aurrekontua ajustatzen ahalegintzeko partez, borondate politikoak erosten aritu da, besteak beste Iñaki Iturainena; bestalde, EAJk ez dio bide eman herritarren parte hartzeari eta aukera hori kendu die, besteak beste, Orioko Ikastolari, gaztetxearen ordezkariari, ingurumenaren arloan dabiltzanei, eta abar.

Gainera, adierazten du Orioko Plaza aldizkaria EAJren aldizkari bat dela, Orioko herriak ordaintzen duena, eta EAJk, bere jarrerarekin, arriskuan jarri dituela ikastolaren eta gaztetxearen bideragarritasuna eta etorkizuna.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura
2009/01/21

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita eta Hazienda eta Pertsonala batzorde Informatzaileak 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA

DIRU-SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	696.821
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.197.011
4	Transferentzia arruntak	3.266.336
5	Ondarezko diru-sarrerak	259.467
6	Inbertsio errealen besterentzea	7.553.294
7	Kapital transferentziak	57.095
GUZTIRA		13.080.024

GASTUEN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	2.391.386
2	Ondasun arruntan erosketak	2.045.757
3	Finantza gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	960.214
6	Inbertsio errealak	6.612.601
7	Kapital transferentziak	1.070.006
GUZTIRA		13.080.024

**ORIO GARATZEN, SL UDAL SOZIETATEAREN AURREKONTUA*****DIRU-SARREREN EGOERA***

Kapituluak	Izendapena	Euroak
5	Ondarezko diru-sarrerak	36.263
7	Kapital transferentziak	6
GUZTIRA		36.269

GASTUEN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
2	Ondasun arrunten erosketak	4.700
3	Finantza gastuak	6
6	Inbertsio errealak	31.563
GUZTIRA		36.269

KONTSOLIDATUTAKO AURREKONTUA ****DIRU-SARREREN EGOERA***

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	696.821
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.197.011
4	Transferentzia arruntak	3.266.336
5	Ondarezko diru-sarrerak	295.730
6	Inbertsio errealen besterentzea	7.553.294
7	Kapital transferentziak	57.101
GUZTIRA		13.116.293

**GASTUEN EGOERA**

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	2.391.386
2	Ondasun arrunten erosketak	2.050.457
3	Finantza gastuak	66
4	Transferentzia arruntak	960.214
6	Inbertsio errealak	6.644.164
7	Kapital transferentziak	1.070.006
GUZTIRA		13.116.293

2.- **ONARTZEA** Orioko Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorren Exekuzio Oinarriak.

3.- **JENDAURREAN JARTZEA** Orioko Udalaren 2009ko Aurrekontu Orokorra, Aurrekontu Propioa eta ORIO GARATZEN SL Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontua biltzen dituen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

- Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzailetzan.
- Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxe ohiko tokietan).
- Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.
- Aurkezteko bulegoa: Udaletxe sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehene ostiralera, 8:30etik 14:30era.
- Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2009KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU-ZERRENDIA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda eta Pertsonala batzorde Informatzaileak 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Orioko Udalaren 2009ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN BATZORDE EXEKUTIBOAN ORIOKO UDALAREN ORDEZKARI BAT ALDATZEA: JOSEBA GOIBURU MANZISIDOR ZINEGOTZIAREN PARTEZ, LEIRE ZINKUNEGI LOPEZ DE GEREÑO ZINEGOTZIA SARTZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Urola Kostako Udal Elkartearen Batzorde Exekutiboan Orioko Udalaren ordezkari bat aldatzea: Joseba Goiburu Manzisidor zinegotziaren partez, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño zinegotzia sartzea.

5.- EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR KOALIZIOKO ZINEGOTZI IÑAKI GARCIA ARANBARRIK AURKEZTUTAKO MOZIOA, PALESTINAKO HERRIARI EGINDAKO ERASOAK ETA GAZAKO SARRASKIAK GAITZETSIZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

PALESTINARREN AURKAKO ERASOAK ETA GAZAKO SARRASKIAK GAITZESTEKO MOZIOA

Azken gertaerak direla-eta, Iñaki Garcia Arambarri Ezker Batua Berdeak-Aralarko zinegotziak Gazako egoerari buruzko mozio hau aurkeztu du premiaz, osoko bilkuran eztabaidatzeko asmoz.

ZERGATIA



Nazioarteari aurka eginda, Israelgo gobernuak hamarnaka jomuga bonbardatu ditu Gazako lurraldean. Horren ondorioz, 300 hildako eta 1.400 zauritu baino gehiago egon dira. Egunen joan-etorrian, kopuru hori handitu egin da. Sarraski hori ikusita, Orioko Udalak zerbait esan behar du eta Gazako biztanleen aurkako erasoak salatu behar du. Era berean, nazioarteari eskatu behar dio presioa egiteko eta zigorrak ezartzeko. Horrela, ez da eraso gehiago egongo.

MOZIOA

Orioko Udalak bete-betean gaitzesten ditu Israelgo estatuak Gazako biztanleen aurka garatutako azken ekintza terroristak, eta herri palestinarren aurkako erasoak berehala eteteko eskatzen du, hamarkadak eta hamarkadak daramatzatelako izu sionistaren eraginpean.

Orioko Udalak AEBetako administrazioaren politika salatzen du, Israelgo estatu terrorista herri oso baten genozidioa antolatzen ari delako haren babespean. Palestinarrak behinola bota zituzten euren lurretatik, eta Gazako zein Zisjordaniako lurraldeak diren kontzentrazio eremuetan bizi dira gaur egun.

Orioko Udalak nazioarteari eta, batez ere, Europar Batasunari eskatzen die eraso anker berri hau egitateen bidez gaitzesteko eta fondo ekonomikoak zein giza baliabideak eskaintzeko. Horrela, palestinarrei lagundu ahal izango diete euren eskubideak lortzen eta erasotzailea geldiarazten.

Orioko Udalak Zapateroren gobernuari eskatzen dio Israelekiko merkataritza-harremanak hausteko, Israeli armarik ez saltzeko, Israelgo enbaxadorea Madriletik berehala botatzeko eta ordezkartza diplomatiko hori ixteko.

Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta ekintza gehien abian jartzeko, Horrela, palestinarrei lagundu ahal izango die egoera larri horretatik irteten.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ-PNV) mozioa onartzearen aldeko botoa emango duela, eta bi puntu gehiago sartzea proposatzen duela.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa emango duela, mozioaren puntu batzuetan gehiegikeriak daudelako: esate baterako, harreman diplomatikoak etetea proposatzen da eta hori ez da komeni, arazoak konpontzeko partez, larritu egingo lituzkeelako; bestalde, mozioan ez da inon aipatzen Hamas mugimendua, eta Hamasen jarraitzaileak islamista teokratikoak dira, emakumeei tratu txarrak eragiten dizkietenak eta hil ere egiten dituztenak.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta Jesus Rodriguez zinegotziari leporatzen dio gauza asko ez dituela kontuan hartzen; esate baterako, su-etena zegoela indarrean Gazako Zerrendan eta Hamas gobernuan dagoela hauteskunde demokratikoak irabazi dituelako; adierazten du, baita ere, lotsagarria dela NBERen instalazioak bonbardatzea eta Europak ezer ez esatea; eta, bukatzeko, adierazten du



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura
2009/01/21

garbi dagoela Israelgo Estatuak eraso egin diola herri palestinarrari, hemen ez baitaude bi armada.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Gazako Zerrendan palestinarrak pilatuta bizi dira.
- Hamas mugimendua demokratikoki hautatu du herri palestinarrak, nazioarteko behatzaileen aurrean.
- Euskal Herrian kartzelatu egiten dute jendea hitz egiteagatik eta ideologia bat defendatzeagatik.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarrik aurkeztutako mozioa, Palestinako herriari egindako erasoak eta Gazako sarraskiak gaitzetsiz.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,